



'ERRUKI JAUNA' KLOWN EMANALDIA GAUR

Gurea aretoan izango da emanaldia 20:00etan, Zurriola Antzerki Eskolan gurasoek sortutako taldearen eskutik 4

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2008-03-07**

VIURTEA 1380.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



N. URBIZU

JON BALERDI ARTUBI ELKARTEKO LEHENDAKARIA

«Artubik antolatzen dituen ekintzekin nabaritzen da Bedaiok bizi gehiago duela»

BEDAIO Elkartearen lehendakari berria da bedaiotarra; abendua bitartean hamalau ekitaldi gehiago antolatu dituzte 6

Bihar, duatloi herrikoia Javier Urkolaren omenez

TOLOSA Bi kilometro korrika, 15 bizikletaz, eta beste bi korrika egin beharko dituzte 3

Eskualdeetako biztanleek bozkatzera deituta daude

TOLOSALDEA-LEITZALDEA Etzi dira Espainiako Kongresurako eta Senaturako hauteskundeak 7

Emakumeek badute gunea, «hutsunea betetzeko»

VILLABONA Emakume talde berri honek Emakumearen Nazioarteko Eguneko ekitaldian parte hartzeko deia luzatu du 2

MARTOKO 7 OSTIRALA

independentzia eguna

musika, kultura

7etan Trianguloan Tolosan

ABSTENTZIOA



Hutsunea betez elkartearen hainbat kide. I. GARCIA

Villabonan Hutsunea betez elkarte sortu dute hainbat emakumek, beraien ahotsa entzunarazteko; bihar, Emakumearen Nazioarteko Egunean egingo diren ekitaldietan parte hartzeko deia luzatu dute.

Emakumeentzako gune bat

IMANOL GARCIA

Ikastaro bat izan zen hasiera. Pepa Bojo psikologarekin Autoestima tailerra burutu zuten hainbat emakumek Villabonan. Udaletik ez zuten espero hainbestek izena ematea. «Tailer horretan elkartasun bat sortu zen», azaldu dute bertan parte hartu dutenek. «Emakumeoi ez gaituzte asko entzuten eta gure artean entzuten hasi ginen tailer ho-

retan. Gure arteko errespetua ere landu genuen eta oso esperientzi ona izan zen. Ez genuen horrekin amaitu nahi». Eta, horrela, elkarri entzuteko gune bat izateko eta beraien ahotsa entzunarazteko sortu dute Hutsunea betez elkarte.

Autoestima tailerra izan bazen hasiera, taldeak sortu dutenek garbi uzten dute guztiz irekita dagoela nahi duenak parte hartzeko bertan. Adin guztietako emakumeak

gonbidatzen dituzte parte hartzera eta dei berezia egiten diete gazteei. «Emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasuna bilatzen dugu, emakumea defendatuz baina inor baztertu gabe», diote.

Ikastaroan landu zuten ezaugarri nagusienetako bat bakoitzaren burua baloratzearena izan zen. «Gizarte matxista batean bizi gara», azaltzen dute. «Emakumea gutxiestua izan da beti eta oso ga-

rantzitsua da gure burua behar bezala aintzat hartzea».

Egoera horretatik ateratzeko gakoetako bat pentsatzeko era aldatzea dela diote. «Pentsatzeko modua aldatuz gero, hitz egiteko modua ere aldatzen da. Beti egiten da erreferentzia lehengoko egoerari, baina horretan gelditzea ez du merezi, eta egungoari eta etorkizunari begira jarri behar dugu». Izan ere, gizarte bat matxista izate-

aren arrazoietakoa bat «emakumeek gizarte eredu horiere transmititu egin dutela» da. «Gure pentsatzeko modua aldatu behar dugu», aldarrikatzen dute.

Diskriminazioa nonahi

Emakumearen diskriminazioa egungo gizartean arlo askotan ikusi daitekeela zehazten dute Hutsunea betez elkartetik. «Hor dago soldatetan dagoen ezberdintasuna, emakumearen erabilera objektu sexual bezala publikitatean, etxeko lanak ez dira elkarbanatzen...». Gizartean gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat rol jakin batzuk oso errotuta daudela diote eta zaila dela horietatik ateratzea. Horregatik pentsakeran aldatzea beharrezkoa dela berresten dute.

Egun gehiegitan albiste izaten den emakumeenganako indarkeriaren aurrean tinko agertzen dira. «Indarkeria jasaten duen emakumei laguntzea eta indarkeria hori salatzea da gure helburuetako bat». Hala, bihar, Emakumearen Nazioarteko Egunean egingo diren ekitalien baitan, eguerdian izango den elkarretaraztearen leloak argi uzten ditu beraien aldarrikapenak. *Stop emakumeen hilketei, beldurrari eta erasoei; Bai berdintasunari, eskubideei, soldata duinei, askatasunari.*

Benetako berdintasuna lortzeko bide horretan gizonezkoiei parte hartzeko deia luzatzen diete. «Beraien alde femeninoa atera behar dute». Emakumeek talde bat osatu duten bezala diskriminazioari aurre egiteko, oso ondo ikusiko lukete ere gizonezkoek berdina egitea eskualdean. Ikastaro bat egiteak berdintasunik eza zabaltzeko eta pertsona bezala aldatzeko asko balio izan zaila gaineratzen dute. Aurrera begira, bilharko ekitaldietan parte hartzeko gonbiteak luzatzen dute, jaino den elkarte berria ahal den gehien artean aurrera eramateko nahia azalduz.

«Egun berdintasunezko sentimendua lantzea beharrezkoa da eta autoestima pauso bat da»

PEPA BOJO » Psikologoa

I. GARCIA

Pepa Bojo (Valentzia, 1962) Zarautzen bizi da egun. Berak bideratu zuen Villabonan egindako Autoestima tailerra.

Zer balantze egiten duzu Autoestima tailerrari buruz?

Tailerra egitearena Udaleko Gizarte Zerbitzuetako sailetik sortu zen. Beraiek nahi zutena zen, alde batetik, emakumeekin lana egitea, genero kontzientzia lantzeko, eta bestetik, gizartearen parte hartzea bultzatzea, eta horrekin batera autoestima lantzea ere bai. Gero talde edo elkarte bat sortzea ez da batera erraza izaten, eta Villabonaren kasuan denak harrituta gaude. Berehala bereganatu zuten ideia, eta



I. GARCIA

beraiek ere nabaritzen zuten zer-bait falta zela, hutsune bat zegoela herrian, emakumeak bildu, identifikatu eta gauzak antolatzeko. Taldeak berak bat egin zuen oso ondo, eta ilusio eta gogo handiarekin daude. Balantzea oso ona izan da.

Aurrekoaren jarraipena izango den tailer bat egin behar duzue.

Emakumeek eskatu zuten beste bat egiteko. Bestalde, hemendik aurrera beste ikastaro batzuk egiteko asmoa dago, irekita nahi duenentzat.

Beharrezkoa da horrelako ikastaroak egitea gaur egun?

Bai emakumei bai gizonei ondo etortzen zaie ikastaroak egitea, beharrezkoak dira. Baina gizonen

parte-hartzea erreflexio pertsonaleko ikastaroetan oso zaila izaten ari da. Autoestimaren gaia askotan aipatzen da, baina batzuetan ez da barneratzen eta ikusi beharra dago nola gauzatzen den egunerokotasunean. Harremanek dagokionez, eta autoestimarekin lotuta, gaur egun garrantzitsua da emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunezko harremanak nola gartu lantzea, eta ezagutzen ditugun boterean oinarritutako harremanek alternatibak bilatzea. Bakoitzarentzako lana egiteaz gain, autoestima lantzea oso ondo dator harremanentzako. Izan ere, berdintasunezko harremanak posible dira zure burua beste edozeinena be-

zain baliotsua delaren kontzientzia hartzen baduzu. Egungo gizartean beharrezkoa da berdintasunezko sentimendua lantzea eta autoestima pauso bat da.

Eta taldeak bakarrik emakumezkoena izatearena?

Emakumeek bakarrik edo gizonezkoek bakarrik egiten dutenean lan hori, ikusi daiteke kultur mailan nola baldintzatu diguten talde bezala, bakoitzak izan ditzakeen zailtasunak gain. Eta hori oso ondo egin daiteke genero batekin bakarrik lana egiten baduzu. Hezkuntza-faktoreak ikustea, adibidez. Egun oraindik badaude hezkuntza-faktore asko emakumei barneratzen digutenak inpotentzia, gutxiesten, ez ausartzea gure lekuan egotea... Hori oraindik hor dago. Bestalde, emakumeen taldeak gune bat dira beste emakumeak joan ahal izateko, erreferentzia bat dira. Eta talde hauek ere lan egin dezakete zentzu horretan, ez instituzioetatik, baizik gizartetik bertatik sortutako mugimendutik.

Aurten, protagonistak, landako emakumeak

Gizartea » Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta, aurten inguru horretako emakumeetan jarri dute harreta berezia.

ERREDAKZIOA

Aste honetan behin eta berriz jakinarazi duten bezala komunikabideek, Emakumeen Nazioarteko Eguna da bihar. Hori dela-eta eskualdeko herri gehienetan gauzatu dira ekintzak, hau ospatzeko. Tolosari dagokionean, aurten, emakume nekazariengan jarri dute arreta. Inguru honetan nola bizi diren eta egoera zein den erakutsiz.

Atzo aurkeztu zituzten, Udaleko ordezkariak, egun hauetarako prestatu dituzten ekitaldian. Han izan zen ere, Arantxa Sorrondegi,

Urkizun bizi da eta nekazaria da. Bere esanetan, «urteetan ez da landa eremuko emakumeek egindako lana onartu». Hauekin soro eta ikuiluetan aritu ondoren, etxean ere jarduten dira, zama bikoitza dutelarik. Horregatik, beraien lana onartua izatea eskatzen du Sorrondegi. Bestalde, Onintza Lasak, Berdinatasun zinegotziak atzoko agerraldian azaldu zuen, landa eremuko emakumeen datuak oso urriak direla, nahiz eta asko izan lan horretan dihardutena.

Berdintasun sailaren blog-a

Udaleko Berdintasun sailak blog berri bat jarri du martxan, egiten duten guztiaren berri emateko. Tolosako Udalaren webgunetik sartu daiteke, edo zuzenean, www.berdintasunatolosakouda.blogspot.com.



Arantxa Sorrondegi, Onintza Lasa eta Josebe Iturriotz atzo, aurkezpenean. E. E.

Berriro hemen da Urkolaren omenezko duatloi herrikoia

Kirolak » Bihar jokatu da proba; bi kilometro korrika, 15 bizikletaz, eta azkenik, beste bi korrika egin beharko dituzte kirolariek.

ERREDAKZIOA

Sei urtez jokatu gabe egon ondoren, berriro ospatuko da bihar Javier Urkolaren omenezko VII. Duatloi Herrikoia. 1997an egin zen lehendabiziko aldiz, eta sei jardunaldi jarraian egin ondoren, gaur arteko etenaldi bat izan zuen. Proba 16:00etan hasiko da, Plaza Zaharrean.

Antolatzaileen arabera, proba honen helburua da, «partaide mota zabal batengana iritsi eta duatloia ahalik eta herrikoiena egitea». Horregatik, «proba oso gogorra» ez egiten saiatu dira. Aurreko ekitaldian, batz bestea, 140 partaide biltzen ziren. Hala, ikastetxe, aisialdi talde, kirol elkarte eta koardiletara zabaltzen zen informazioa.

Duatloia korrika egitea eta bizikletan ibiltzea lotzen dituen kirola da. Aurtengoan, parte-hartzaileek egin beharreko lana ondorengoa izango da: hasteko, bi kilometroko korrika saioa Tolosako Alde Zaha-



Denera, lau kilometro korrika eta 15 bizikletan egin beharko dituzte. A. OTEZABAL

rreko kaleetan barrena. Segidan, bizikleta hartu eta Tolosatik Anoetarako bidean joan-etorrian 15 kilometro zeharkatu beharko dituzte. Amaizteko berriz, bi kilometroko korrika saioa egingo dute Alde Zaharreko zirkuituan.

VII. Duatloi Herrikoia honetan boxes edo gune nagusia Plaza Zaharrean egongo da. Han bilduko dira partaideak irten aurretik. Bestalde, izen-ematea ere bertan egin ahal izango da. Hor utziko dituzte bizikletak eta arropa korrika abiatu aurretik, bigarren eta azken korrika saioa bertan bukatuko delarik.

Aurrekoetan bezala, oraingoan ere ez da izango lehen sailkatuen izakio sari nagusirik. Izan ere, Tolosako Triatloi Taldekoentzat, sari

nagusia, «proba bera osatu ahal izatea eta lagunartean gozatzeko dira». Hala, kirol sorten zozketak, afarienak... egingo dira, «horrekin ere giro herrikoia areagotzeko asmoz».

Javier Urkolaren omenez

TTTko kide zen tolosar hau, 1996an hil zen errepide istripu baten ondorioz. Gustukozen zuen kirola egiten ari zen, bizikletan entrenatzen. Ikasgelan, triatloi taldean nahiz lagunartean, lezio on asko emandakoa izan zen. Bere taldeki-deek azpimarratzen dute ere, besterentzat eta besteen alde lan egiteko beti izaten zuen jarrera, gazteak kirolean murgil zitezen egin zuen lana eta proba herrikoietan parte hartuz gozatzen zuena.

Gutunak

Eusko Alkartasuna eta greba orokorra

Tolosako Eusko Alkartasunako Batzardegrebaren inguruan bere iritzia azaldu zuenean, Tolosan gertatutakoaren inguruko gogoeta baino ez zuen egin. Hortaz, lekuz kanpo dago Iñaki Elduaienek, bere ezker abertzalearen "ordezkari gisa egin zuen gogoeta. Alegia, zergatik eman ote genuen gure iritzia oraingoan eta ez ordea Loiolako mahaikideen, 18/98 auziaren edo torturen inguruan. Bada, horretarako gu baino jantziagoak egon daitezkeen ordezkariak ditugulako eta alderdiaren iritzia kaleratua eta ezaguna delako.

Norbaitek ez al daki oraindik nola arbuaitu ditugun beti alderdi gisa Espainiatik gure herrira zuzentzen diren erasoak? Inorrek esan al lezake (alderdikeri eta interese politikotik ez bada) torturak, eskubide ukapenak eta lege-kanporatzeak babestu ditugula?

EA argi eta garbi aritu da beti edozein bortizkeri adierazpenen aurrean. Berdin zaigu nondikan datorren. Ez gara isiltzen. Elduaienek bere ezker abertzale" horren ordezkari gisa zer egin dugun gal-

detzen digu. Zer egin dugun Estatuaren gehiegikerien kontra. Salatu. Ozenki salatu eta arbuaitu. Bere ustez ziurrenik ez da gehiegi izango. Izan ere, berak ordezkatzaren duen "ezker abertzaleak" askoz gehiago egiten omen du gehiegikeri guzti hauek salatzen. Agian. Egia da... kartel gehiago jartzen dituzte eta noiz edo noiz elkarretaratzak bideratzen dituzte. EAK baino gehiago egiten dutela diote. Nahiz emaitzak ez izan hobekak.

Gure salaketa pobrea, eskasa omen da. Epela. Ez omen dira nahikoak gure ordezkariak egiten dituzten adierazpenak eta salaketak. Ez omen dira... Baina, Iñaki Elduaienek eta berak ordezkatzaren duen "ezker abertzaleko" gainontzeko burukideak ausartuko al litrateke guk Estatuaren gehiegikerien aurrean egiten dugun salaketa (eskasa) beraiek ETArean jardunaren aurrean egitera?

Eusko Alkartasuna epela omen da Espainiaren aurrean. Nahiko genuke epelkeri hori zuen ahotan ETArean aurka. Guk ozen eta garbi diogu: ilegalizaziorik ez! Eskubide ukapenik ez! Torturarik ez!

Noiz entzungo diogu Elduaieni eta berak ordezkatzaren duen "ez-

ker abertzaleari" ozen eta garbi esaten: estortsiorik ez! ETA ez! Erailketarik ez! Mehatsuak ez!

Gurea epela omen da. Gure salaketa testimoniala omen da. Ahalegin gutxiak. Egin bezate beraiek antzerako epeltasun eta ahalegin txikiarekin ETArekin kontrako salaketa! Egun horretan, epeltasun horrek, txikiak horrek, ate guztiak zabaltzeko, esku guztiak luzatzeko, etorkizuna eraikitzeko indar guztia emango ligitzeko. Txikiak izanik gertakari handi bat litzatekeelako.

Bakardadea. Gaizki ulertu nahi izanik horixe dakar: gaizki ulertzea. Bakardade politikoa ez da neurtzen boto gehiago edo gutxiago jasotzeagatik. Diskurtso batek gizaratearen gehiengotik duen urrutitasunagatik baizik. Eta egun, Iñaki Elduaienek ordezkatzaren duen "ezker abertzalea", gero eta isolatuagorik dago. Pixkanaka kalea guztiona bihurtzen ari da eta beraien deialdiek gero eta jarraitzaile gutxiago dituzte. Ez ziren gutxi izan Patxi Zabaletaren antzera, bortizkeriak eta ETArean jardunaz nazkatutik "ezker abertzale" hortaz aldentu zirenak. Hauek traidore, espainolista salduak

izango dira noski. Jeltzaleak bezala. EA-ko kideok bezala... Azkeneak Txelis eta Pikabea presoak. Derripentean", gudariak zirenak, herriaren erredutzat zituztenak ere, traidore, salduriko espainolista bihurtu dira jarduera armatua arbuaitzeagatik...

Elkarlanari ekiteko eskuak zabalik daudela dio. Lotsa gutxi behar da gero Usurbilgo egoitza bitan erasotu diguten aste berean hori botatzeko. Gure hauteskunde kartelak estali dituzten aste berean esateko. ETAk jarritako lehergai-luena aurrean berriz ere isilik gelditu direla ikusten dugunean...

Baina barkatu. Ahaztu ginen. Errua gurea da. Epeltasunagatik. Saldukeriagatik. Ustelkeriagatik. Nolako ausardia gurea duintasun eta koherentzi handieneko taldeari ezer aurpegiatzeko. Erredutzat beharko genituen eta gu kritikan. Bolo-bolo Espainiar muturreko eskuinaren diskurtsoarekin.

Ikasi dugu lezioa. Greba deialdian, bada ez bada, norbait ahaztu edo despistatu dela ekiditeko, bere lanpostura joango gara itxi beharko lukeela oroit araztera. Eta bihamunean noski, prentsaurreko publikoa emango dugu

ahaztu ziren horiei gure esker ona adierazteko... erakutsirik elkartasunagatik.

Hala ere, eta gure eskuak zabalduz noski, Derioko ANVren ildoari eustera gonbidatzen zaituztegu. Eta erasoak daudenean salatzen. Epel-epel. Gure antzera. Esfortzu gutxiarekin. Ahalegin justuarekin. Ez gehiago. Eusko Alkartasuna Espainiaren aurrean bezala. Gain esfortzurik gabe. Nahikoa zaigu. Gehiegi kasik. Orduan ikusiko baituzue txikiak bat den horrek izan lezaken handitasuna.

Hauteskunde egunean ez gara joango nork bozkatzen duen kontrolatzera. Ez gara ate aurrean jarriko bozkatzen gonbidatuz eta are gutxiago guri bozkatzeko eskatzen. Elduak gara. Badakigu tolosarrek libreki erabaki behar dutela joatea edo ez, eta joan ezkerori bozkatu. Bakoitzari dagokion askatasuna errespetatuko dugu. Zuek ordezkatzaren duen "ezker abertzalea" askatasun hau aitortuko digu hala etxea zaintzen duen zakurraren moduan atarian egongo zarete "despistatuak" ekiditeko.

Tolosako Eusko Alkartasunako Batzardea. Tolosa.

'Erruki Jauna' klown emanaldia, gaur Gurean

Villabona » Zurriola Antzerki Eskolan gurasoek sortutako taldeak egingo du antzezlan; 20:00etan hasiko da emanaldia



Higa taldekoak, moja klown-*ez jantzita*. HITZA

ERREDAKZIOA

Antzezlan umoretsu bat ikusteko aukera izango dute gaur antzerki-zaleek: Gurea aretoan. Zurriola Antzerki Eskolako Higa taldeak *Erruki Jauna* klown obra emango du, 20:00etan. Sarrerak 3 euro balio ditu, 2 euro Gazte Txartelarekin.

Joxerra Fachado eskolako eta taldearen zuzendariak azaltzen duenez, «taldeak berak sortutako obra da. Eskolan klown estiloa lan-

du guenen aurreko ikasturtean eta orain obra honekin hasi gara emanaldiak egiten». Fachadok gaineratzen duenez, «oso dibertigarria da *Erruki Jauna*».

Beraien seme-alabak Ikastolan antzerkia lantzen zutela ikusita, orain hiru urte guraso talde batek eskatu zuen ere tailer bat egitea eta hortik sortu da Higa taldea.



Abstentziorako deia egin dute

ADUNA » Adunako hautetsi independentistek abstentziorako deia egin dute etzi egingo diren hauteskundeetarako. «Ozenki esan behar diegu iruzur berri bat egin nahi duten sasi-politikoei ezetz, ez duela herri honek berriro onartuko batzuek herri honen boterea mantentzeko eta patrikak diruz betetzearen truke», azaldu dute. «Bitartean, Euskal Herriaren alde egunero borrokan ari garenei espetxeetan, apartheid egoeran udaletan lanean... beste hogeita hamar urte luzeetan kondenatzerik». HITZA

Laburrak

Biharko elkarretaratzean parte-hartzeko deia

VILLABONA » Amasa-Villabonako ezker abertzaleak, emakume langileen nazioarteko eguna dela eta, bihar 12:00etan Hutsunea betez sortu berri den emakume taldeak antolatu duen elkarretaratze deia egiten ditu ezker abertzaleko emakume guztiak. Ezker abertzaleak azaldu duenez, «interesgarria egingo zaigu honelako taldeen sorrera».

Halterofiliako Euskadiko I. Liga, Olaederran

VILLABONA » Olaederra Kirolegian Halterofiliako Euskadiko I. Liga Kadete eta Promesa mailan egingo dute bihar, 17:15etik aurrera. Liga honetan Arabak, Bizkaiak, Nafarroak eta Gipuzkoak parte hartuko dute.

Hainbat ekitaldi, gaurkorako, kultur astean

ANOETA » Kultur Astearen baitan, gaur hainbat ekitaldi izango dira. Alde batetik, Zuhaitz Eguna egingo dute, 15:30etik 17:00etara, Ikastolako LH5 eta LH6ko ikasleek zuhaitzak landatuz. 18:00etan *Xurdirin kontzertua* umeentzako ikuskizuna, frontoian, hiru euroren truke. 22:00etan, *Mooladee* filma afrikarra ikusuteko aukera izango da udal areto nagusian. Emakumeen ablazioaren gaia jorratzen da bertan.

Hilaren 10a arte izena emateko aukera

ANOETA » Pazko asterako ludotekan izena emateko epea hilaren 10a arte luzatu dute. Begirale bezala lan egin nahi duenak ere hilaren 10a arte du izena emateko.

Behar-Zanako pilotariak garaipenak pilotzen

VILLABONA » Pasa den astean Gipuzkoako Joko Garbiko Txapelketan Behar-Zanakoak txapeldun eta azpitxapeldun izan ziren. Benjamin eta alebin mailako lau talde Angelun aritu ziren bertako finalak jokatzen. Bestalde, Gipuzkoako Trinkete Txapelketan 2. mailan banaka txapeldun izan zen Imanol Arruti GRAVN txapelketarako hautatua izan da. Horretaz gain, bihar, Irurako Trinketean Gipuzkoako Lehen Mailako Finala jokatuko du Arruabarrena bikote duelarik 17:00etan. Bestalde, gaur, 21:15ean hasita, Amasan kadete mailako partida izango da Iñaki Otaegi-Ezeiza eta Etxarri-Unai Otaegiren artekoa. Ondoren, Uda-berri Txapelketako jubenil mailako partida izango da: Ordozgoiti-Inza eta Legazpiko Gaztetxea.

martxoaren 12an

herri informazioaren
leihoa
zabaltzera goaz

txokoak
h

2 sarrera pare zozketatuak

kilometroak 08ren alde

Pirritx eta Porrotx

Irabazleak:

- 17:00etako saiorako: Alona Izagirre (Berrobi)
- 19:00etako saiorako: Inazio Agirre (Tolosa)



Martxoak 8, larunbata ◦ 17:00etan eta 19:00etan ◦ Tolosako Leidorren



HITZAren harpidedunentzat abantailak

sarrerak leihatilan bertan izango dituzue

4 sarrera pare zozketatuak

Irabazleak:

- Agustin Amiano (Altzo)
- Oskar Patrocino (Villabona)
- Elena Alustiza (Alegia)
- Josetxo Lasarte (Ibarra)



BRUESA GBC Aguas de Valencia

OSTIRALA

MARTXOAK 7 - 20:30

ILLUNBE

sarrerak HITZAren Tolosako bulegoan izango dituzue

E Elkarrizketa

JON BALERDI » Artubi elkarteko lehendakaria

«Bedaiok bizi gehiago daukala nabaritzen da»

Bedaio » Artubi elkarteak badu lehendakari berria eta dagoeneko antolatatu dituzte urte guztiko ekitaldiak, Bedaio ezagutzera emateko helburua lortuz.

NEREA URBIZU

Jon Balerdi (Bedaio, 1971) da Bedaio Artubi elkarteko lehendakari berria. Urtebetez ariko da beste 9 laguntzailerekin batera. 6 zuzendari izan dira daude elkartearen eta urtero aldatzen dute. Guztira, 72 bazkide dauzka Artubik.

Zeinek osatzen duzue zuzendaritza taldea?

Lehendakari ordea Ikerme Maiza da, idazkaria Nagore Maiza; diruzaina Ino Jauregi, almazenero arduradunak Pako, Patxi, Joxe Mari eta Iñaki dira; bokala Ramon da eta afari-bazkari ez arduratzen dena Pili da. Hori da aurtengo taldea, guztira hamar.

Joan den urtean bezala, aurten ere hilabetero gutxienez ekitaldi bat antolatuko duzue.

Bai, otsailen barrukotea egin genuen, martxoan emakumeentzako afari arrakastatsua antolatatu genuen (60 elkartu ziren eta oso ekitaldi polita izan zen), eta hilabetero izango dira ekitaldiak.

Bedaio Mendi Ibilaldia arrakastatsua izan zen. Aurten ere egingo duzue?

Bai, egiteko asmoa dugu, ekainean. 10 gara zuzendaritza taldean, baina arazean beti jendea dugu, eta lagundu egiten dute, noski. Ekitaldi honek, adibidez, lana eskatzen du: antolakuntza aldetik, prentsarekin harremanetan jarri, merkatariei laguntza eskatu behar zaie...

Ekintza berriak ere sortu dituzue.

Gaztetxoaren txokoa antolatatu nahi dugu: Bedaion jende guztiaren zako zerbait antolatatu nahi izan dugu. Ikusten genuen haurrentzako hutsune bat zegoela. Ez dugu ezer zehatzik, baina jokuak eta ha-



N. URBIZU

lakoak egingo ditugu. Tailerrak, eskulanak... asmoa daukagu.

14 ekitaldi gutxienez. Ez da asko?

Lan gehiago da, baina gustura egiten dugu. Ekitaldi guztiak irekiak dira, ez bedaiotarrantzat bakarrik, eta gustura ibiltzen gara. Triptiko bat ere atera behar dugu, egutegi guztia zehaztuz. Webgunea ere berritzen joango gara (www.bedaio.com). Atal berriak ere izango ditu, baina ez da oraindik egin, bidean den zerbait da.

Zuen helburua zein da?

Bedaio ezagutaraztea bai. Badira finkoak diren ekitaldiak: barrukotea, kultur asteburua, harri jaiak, festak... Ibilaldia eta azoka berriak ziren iaz eta horiei jarraipena eman nahi zaie. Bedaiok bizi gehiago daukala nabaritzen da, batez ere ibilaldian, hildako gazteen omenez egindako egunean jende asko hurbiltzen da... Jendea, ikusten da ekintza hauetan parte hartzen duela, aitzakia bat behar da denak biltzeko eta jendea oso gustura joaten da, parte asko hartzen du eta astean zehar bakoitzak bere

bizita egiten du eta halakoetan jendea mugitzen da.

Diru asko behar duzue hau guztia antolatzeko?

Tolosako Udalak joan den urtean 5.000 euro eman zizkigun, festetarako eta jubilatuen bazkarirako. Diru asko ez dugu behar... Baina gogo, ilusio asko daukagu, elkarlan bat da eta asko gozatzen dugu.

» EGITARAUA

- **Apirilak 5.** Astigarragan sagarrondo txertaketa ikastaroa.
- **Maiatzak 8.** Harri jai eguna.
- **Maiatzak 9-11.** Kultur Asteburua.
- **Ekainak 8.** Mendi ibilaldia.
- **Ekainak 22.** Jubilatuen eguna.
- **Uztailak 6.** Gure artean falta ditugun gazteen oroiaren eguna.
- **Uztailak 25-27.** Gaztetxoaren txokoa.
- **Irailak 5-8.** Jaiak.
- **Irailak 28.** Abereen inguruko ekitaldiak.
- **Urriak 4.** Afaria.
- **Azaroak 1.** MUSA, gaztain jatea eta kantu afaria.
- **Azaroak 29.** Errioxara bidaia.
- **Abenduak 14.** Azoka.
- **Abenduak 24.** Eguberrietako kantuak baserriz baserri.

Iragarki laburrak**LANA**

■ **Etzeko lanak.** Emakume eskaldun bat behar dugu etzeko lanak egiteko eta adineko emakume bat zaintzeko, Alegian. 65170 4219.

L Laburrak**Zuhaitz Eguna gaur egingo dute frontoi inguruan**

ALTZO ● Zuhaitz Eguna antolatatu du Altzoko Udalak gaurko. Aurten landaketa frontoiaren inguruan egingo dute Jose Mari Arsuaga Iorezainaren laguntzaz. Irekia da ekitaldia eta herritar guztiak daude, beraz, gonbidatuta. Interesa izanez gero, 15:15ean frontoi aldean elkartuko dira, eta Imaz Bertsolaria eskolako ikasle eta irakasleekin elkartuko dira. Bukatzeko, Segoretxen merienda izango da parte hartzen duten guztientzat.

Udaberri, Euskadi eta Berria pilota Txapelketatan

PILOTA ● Aurrera-Saiaz pilota eskolako kadeteak gaur Ibarren Udaberri txapelketan ariko dira jokatzeko, 19:30ean, Arrasatekoan aurka. Unai Onsaldo seniorrak, berriz, Euskadiko klub txapelketako finala jokatu du Aretan. Bestalde, Berria Txapelketan Huarteren aurka aritu beharko dira Urnietan etzi, 10:30etik aurrera, Urnietan bertan. Partida hauek gogorak izango dira.

Gimnastika erritmikoko 2. fasea bihar Belabietan

IBARRA ● Gimnastika erritmikoko eskolarteko A mailako txapelketaren 2. fasea jokatu dute bihar Ibarren Belabietan kiroldegian. 10:00etatik 13:00etara alebinak, infantilak eta kadeteak ariko dira. 15:00etatik 18:00etara, berriz, seniorrak eta jubentariak.

Altzon eta Albizturen, argi berezien banaketa

INGURUMENA ● Energiaren Euskal Erakundeak eta Albizturko eta Altzoko Udalen energia-eragin kortasunari buruzko programetan eta Energia Berriztagarrien promoziorako sinatutako hitzarmenaren baitan, kontsumo gutxiko argi sorta baten banaketa egingo dute asteartean 15:30etik 17:30era, bi herrietan. 75 watioen bezalako kontsumo gutxiko argia, energia aurrezteari buruzko gida, ibilgailuentzako biokarburanteei buruzko informazio-liburuxka eta autoen doako gidatze-ikastaroak buruzko informazioa eskainiko dute. Sorta eskuratzeko derrigorrezkoa izango da NANA, pasaporte edo nortasun agiria egiaztatzen duen dokumenturen bat.

Sagarrondoak txertatzen ikasteko ikastarorako epea

BEDAIO ● Apirilaren 5ean Astigarragan autobus zuzendari Bedaio txertaketa nola egiten den ikustera. Ondoren, sagardotegi batean bazkalduko dute. Irekia da ekitaldia baina izena lehen bailehen ematea eskatu dute Artubi elkarteok, 666 61 85 58 telefono zenbakira deituta.

Denak irabazle?

**» Kale-kantoitik**

Joxemi Saizar

Eskia mendeurrena ari gara ospatzen egun hauetan. Horretan ere aitzindari izan ziren tolosar batzuk estatu mailan. Atletismo eta futbol estadio bat egiten ere bai. Lehendabiziko paper fabrika, Inauterriak mantentzea eta beste hainbat ekimen ere erantsi ditzaugu zerrenda honetan.

Tolosan gauza berriak sortzeko ekimen horren arrazoi bezala aurreko mendearen hasieran atzerrotar asko izatea aipatzen dute askotan. Hala esan zuen herenegun Francisco Tudurik bere hitzaldi interesgarrian. Norvegiarrak, suediarak, frantziarrak izan ziren orduko etorkinak, enpresa berriak jartzera etorriak. Baina berdinakal dira etorkin haiek eta mende honen hasieran ezagutu ditugunak? Arrazoi berdinekin etorriak al dira? Zenbat aldatu diren etorkinak mende batean!

Bestalde, aste honetan bertan aurkitu dut hauteskunde garaiokanpaina ekologikoena: karlisten (erregeez oroitzen diren bakarrak) "Ez zaitez isildu" mezua. Kolarik eta kartelik erabili gabe, kalea zikindu gabe, megafonia jasanez gabe, bere egoitzan bi pankarta jarri eta kitto. Kanpaina garbia, ekologikoa. Halako energia eta denboragastu txikiarekin jasotako botoekin, alderdien arteko portzentaririk hobierenak lortuko dituzte seguraski.

Gainera eskualdeko zerrendaburuak dituen talde bakarra dela ez dugu ahaztu behar. Zerrenda tolosarrena. Zalantzarik gabe, hauek ere irabazle izango dira astelehenean eta emaitza positiboak lortuko dituzte. Alderdi guztiak bezala. Hori ikasi dugu hauteskundeak ezagutu ditugun urte hauetan.

@ Begiradak. Hitzak webgurean irakurleari informazioa erraztu nahian, gai zehatz batzuei buruzko informazioa bateratu egiten du: hala nola, inork AHTri buruz Hitzak argitaratu duen guztia bilatu nahi izanez gero, *Begiradak* atalean aurki dezake. Gutxinaka, ari gara gai eta gizartearen alor gehiago sartzen: idazleak, bertsolariak, alkateak, etxebizitza, musika taldeak... Beraz, ikusi eta ikasi! Beste gairik proposatu nahi izanez gero, *Zurea da hitza* atalean idatz dezakegu, eta guk kontuan hartuko dugu.

www.tolosaldeko-hitza.info**HITZA** lanpostua

Urola Kostako HITZAK KAZETARIA BEHAR DU

ezaugarriak:

- Kazetaritza edo Euskal Filologian lizentziatutako Urola Kostako biztanleak.

Curriculum-a bidali helbide honetara:

Zelai Ondo 23, behea • 20800 ZARAUTZ • Telefonoa: 943 89 00 17
urolakosta@urola-kostakohitza.info

Etzi bozkatzera deituta daude bi eskualdeetako biztanleak

Hauteskunde orokorrak »
Etzi Espainiako
Kongresurako eta
Senaturako hautagaiak
aukeratu ahal izango dira.

ERREDAKZIOA

Egun bakar bat besterik ez da gelditzen hauteskunde kanpaina ofizialki amaitu dadin, eta bihar, gogoeta eguna izango da politikarientzat. Hauteskunde ekitaldiak, beraz, gaur amaituko dira, nahiz eta bihar ere hala edo hola politikariek gogoeta egun horren barruan egingen dituzten ekitaldi «apolitiko» beraien kutsua eman.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko herriarrek ere Espainiako bi ganbarako, Kongresurako eta Senaturako hautagaiak aukeratu ahal izango dute. Besteak beste, EAJ, EA eta Aralar euskal alderdiek ere aukera dute ordezkaritza lortzeko. Audientzia Nazionalak, berriz, EHAKren eta ANVren jarduna eten zuen eta, ondorioz, ezingo du hauteskundetan parte hartu.

Ohikoa den bezala, Espainiako

Gorteetarako hauteskunde-mahaia 9:00etan zabalduko dituzte eta eskualdean, bai Tolosaldean, bai Leitzaldean ohiko lekuetan jarriko dituzte hauteskunde-mahaia. Hauek 20:00 arte egongo dira zabalik. Goizeko 09:00etatik 20:00 arte, beraz, nahi izanez gero Espainiako Kongresurako eta Senaturako hautagaiak aukeratzeko botoa emateko aukera izango dute Tolosaldeko eta Leitzaldeko biztanleek.

Kanpainak ofizialki 2 aste iraun ditu, denbora honetan hainbat alderdik egin dituzte ekitaldiak, besteak beste, Aralarrek, Ezker Batuak, EAJk eta EAK agerraldiak egin dituzte eskualdean.

Kongresua eta Senaturak

Igandeko hauteskundeetan herriarrek Espainiako Kongresurako eta Senaturako hautagaiak aukeratu dituzte. Kongresuari dagozkionez, Gipuzkoari 2 diputatu dagozkie, Halere, biztanlegoaren arabera beste hainbat lor ditzake. Guztira, 350 diputatuk osatzen dute Espainiako kongresua. Kongresuak funtzio asko ditu baina,



09:00etan zabalduko dituzte hauteskunde-mahaia igandean. I. TERRADILLOS

besteak beste, Espainiako gobernuaren osaketari baimena ematen dio.

Senatuan, aldiz, Gipuzkoari 4 senatari dagozkie. Horrez gain, EAERI beste bat dagozkie, eta beste

bat milioi bat biztanle bakoitzeko. Eusko Legebiltzarrak aukeratzeko dituzte. Senaturak lurraldeetako politikaz arduratzen da. Hauteskunde ondoan, Kongresua eta Senaturak aste gutxi barru osatuko dira.

» EMAITZAK

TOLOSALDEA 2004

- EAJ. 7.984 (%40)
- EA. 3.348 (%17)
- Aralar-Zutik. 1.898 (%9)
- IU-EB. 1.603 (%8)
- Baliogabeak. 5155 (Bergarako Ekimenarenak dira baliogabe boto gehienak).
- PP. 1.912 (%9)
- PSOE. 3.075 (%15)

TOLOSALDEA 2000

- EAJ. 5.425 (%39)
- EA. 3.142 (%22)
- Aralar-Zutik. 2000ko hauteskundeetara ez zen aurkeztu.
- IU-EB. 578 (%4)
- PP. 2.825 (%20)
- PSOE. 2.239 (%15)

LEITZA 2004

- NA BAI. 795 (%61,34)
- UPN-PP. 282 (%21,76)
- PSOE. 151 (%11,65)
- NEB. 34 (2,62)
- IR. 6 (%0,46)
- CDN. 5 (%0,39)
- PH. 3 (%0,23)
- PC. 1 (%0,08)
- ESPAÑA 2000. 1 (%0,08)
- Abstentzioa. 858
- Baliogabeak. 320

ARESO 2004

- NA BAI. 64 (%45,39)
- UPN-PP. 30 (%21,28)
- CDN. 29 (%20,57)
- PSOE. 16 (%11,35)
- NEB. 1 (%0,70)
- Abstentzioa. 71
- Baliogabeak. 42

«Gure ustez politikan kontsentsua bilatu behar da gauzak aurrera atera nahi baditugu»

INAKI IRAZABALBEITIA » Aralarren Gipuzkoako Zerrendaburua, Espainiako Kongresurako

Hauteskundeak » Inaki Irazabalbeitia da eskualdetik Espainiako Kongresurako zerrendaburua den bakarra.

ERREDAKZIOA

Inaki Irazabalbeitia (Alkiza, 1957) datozen hauteskundeetan Aralarren Gipuzkoako zerrendaburua da Espainiako Kongresurako, eta bera da eskualdean Kongresurako alderdiren baten zerrendaburua den bakarra. Zientzia kimikoetan doktorea izan arren, 2 eleberririk idatzi ditu, eta hainbat itzulpen ere eginak ditu. Gaur egun ELEKAKo kudeatzailea da, eta kanpaina egiteko oporrak hartu dituela dio. Hautatua izanez gero, eszedentzia hartuko luke. Tolosako zinegotzi hautatua izan zen, baina ez zuen kargua hartu, Irazabalbeitiak azaldu duenez, bere kargua «ANVri zegokiokiolako. Alderdi guztien artean Aralarrek bakarrik egin du hori

eta nik uste hori azpimarratzekoa dela».

Nola ikusi duzu hauteskunde kanpaina?

Batetik hauteskunde hauetan gabetza bat egon da, ezker abertzale ofizialak aurkezteko modurik ez duelako izan. Hori tamalgaria da eta horrek erakusten du Espainiako demokrazia ez dela demokrazia osoa. Bestetik saiatu egin dira batez ere 2 alderdi nagusien aldetik, PSOE eta PPren aldetik, bipolarizazio faltsu baterakusten, nolabait 2 aukera bakarrik daudela esaten. Sistema estatubatuarra honera ekarri nahi izan dute, hemengo horrelakoa ez denean, ez baitu islatzen estatuan dagoen aniztasuna, eta gutxiago Euskal Herrian, Katalunian edo Galizian egon daitekeen aniztasun ere handiagoa. Hirugarrenik gogoratu behar zaie Zapatero eta Raxoi jaunei Espainiako hauteskundeetan legearen arabera edozein diputatu izan daitekeela gobernu presidentea, nahiz eta diputatu hori bakarra

izan bere taldean. Hori ezkutatu egingen da.

Zure ustez bipolarizazio horrek eragina izango du emaitzetan?

Eragina izango du seguruenik estatutu mailan, eta kalte nabarmen bat egongo da, Ezker Batua. Hemen ere neurri batean eragina izango du, baina pentsatzen dut are txikiagoa izango dela, hemen beste aniztasun bat dagoelako, eta 6 indar gaudelako nolabait Madril egoteko aukerarekin.

Oso argi ikusten duzu zeinek irabaziko duen?

Ez daukat garbi. Nik uste dut inkestean arabera PP eta PSOE nahiko berdinduta daudela. Gipuzkoara etorrira 6 eserlekutatik 5 zeinentzat izango diren garbi dagoela ematen du, alegia, 2 EAJrentzako, 2 PSErentzako eta bat PPrentzako, aurreko hauteskundeetan arabera, eta inkestean arabera. Seigarrena da lehian dagoena.

Zeinen artean?

Lehian dago batetik Aralar eta EA-aren artean, eta bestetik Aralar eta

EA eta partidu nagusiaren hirugarren diputatuaren artean.

Zergatik sartu zara politikan?

Niri beti gustatu izandu zait politika, eta pentsatzen dut gauzak aldatu nahi direnean egokiena ahal den heinean parte hartzea dela, eta ez paso egitea. Eta horregatik ere bideratzen ari diren abstentzio konsigna horiek ez ditut egoki ikusten. Abstentzioa berez jarrera politikoa zilegi bat da, baina efektiboa izateko atzetik indar metaketa handia behar du, eta ez da kasu. Kasu honetan, oraingo egoeran abstentzioa da paso egitea. Zuk hartzen ez duzun tokia beste batek hartuko du, eta hauteskundeek ez dute zilegitasun gutxiago indar bakar batek parte hartzen ez duelako eta hori ere garbi izan behar du hautesleak. Eta Madrilen Euskal Herriari buruz gauzak erabakitzen jarraituko dutela bertan batzuku egonari uko egin badiote edo ez. Horregatik garrantzitsua iruditzen zaigu ezker abertzaleko indar bat Madrilengoteko.

Espainiako Kongresuko politikariek askotan ez dute oso serioak ematen.

Nire ustez politika gauza serio bat da, politikan eztabaidatu behar da, iritzi kontrajarriak izango dira, eta nolabait entzun behar da, baina aditu egin behar da, bizkaitarrek esaten duten zentzuan: ententitu. Askotan politikan gertatzen da batek hitz egingen duela eta besteak entzun bai, baina ez duela ulertu nahi horrek esan nahi diona. Askotan jarrekar hartzeko dira ez esan denaren arabera, baizik eta zeinek esan duen kontuan hartuta. Nik uste horrekin bukatu egin behar dela. Madrilgo Kongresuan bereziki hau aregotu egin da azkeneko 4 urtetan PPK izan duen jarrera-rengatik, gobernuari etengabe erasotu diolako eta ez duelako kontsentsua bilatu.

Kontsentsua bilatzea politikan ezinbestekoa da zure ustez?

Gure ustez politikan kontsentsua bilatu behar da gauzak aurrera atera nahi baditugu, bat ez dela egia osoaren jabe, guztion artean gizar-tearen onerako egia osatu behar dugula. Horretan Aralarrek garbi dauka hitz egin behar den guztiekin hitz egingo duela eta akordioetara iristea posible den guztiekin saiatuko dela. Politika ez da txuria edo beltza, grisak ongi kudeatzea da politika.



9°
6°

GOIZA EURIA
ARRATS. EURIA
BEROENA 11°
HOTZENA 8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leizaola: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leizaola: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Hitzadiak

■ **Zizurkil.** *Marimendi* proiektioa eta hitzaldia 19:30ean. 40 urte inguruko emakume talde batek egiko ekitaldia oinarritzat hartuta.
■ **Elduain.** *Zer jan, hala bizi* hitzaldia emango du Arantxa Lorenzo dietistak Larte kultur etxean 17:30ean, Emakumeen Eguna dela eta.

Deialdiak

■ **Altxo.** Zuhaitz Eguna antolatu dute, 15:15ean. Frontoi inguruan elkartuko dira eta zuhaitzak landatuko dituzte lorezain baten laguntzaz. Ondoren, eskolako ikasleak ere etorriko dira irakasleekin.
■ **Anoeta.** Pazko asteen ludoteka

antolatu du Udalak, martxoaren 25etik 28ra, 11:00etatik 13:00etara, HH1etik LH5era bitartekoentzat. Izen-ematea udaletxean edo kiroldegian. Bestalde, Udalak begiraleak behar ditu ludoteka horretarako zein udaleku irekietarako
■ **Aldaba.** Ekintza planaren lehen zirriborroa aurkeztuko dute Aldabako Apaiz-etxean 20:00etan, Berpiztu egitasmoa dela-eta, auzotarren artean antze-man diren hutsune konponbideak bilatzen saiatzeko helburuz.
■ **Larraul.** Apirilean Parisera asteburu bateko bidai antolatu nahi dute, taldea osatzen bada. Izen-ematea, 943 693930 telefonon.
■ **Lizartza.** Bertso afaria, Lizaso eta

Egañarekin larunbatean. Manolo Iburguren soinu-jolearen laguntza ere bai. Gaiak: Emakumeen eguna, hauteskunde bezpera, herriko gorabeherak...

■ **Tolosa.** Carlos Garcariaren kartografia ikastaroa, gazteleraz. 19:30etik 21:00era. Etzi 09:00eta-

tik 13:00etara Urkizu-Mendikute ingurura paseoa.

Kultur Asteak

■ **Anoeta.** Zuhaitz Eguna: ikasleek landaketa egingo dute 15:30etik 17:00etara, 18:00etan *Xurdinen kontzertua* izango da frontoian (sa-

rrera, 3 euro); 22:00etan *Mooladee* filma udal areto nagusian.

Musika

■ **Tolosa.** Katamalo musika taldea Bonberenean 22:30ean.
■ **Tolosa.** Pedro Guerra kantautore kanariarraren kontzertua Leidor aretoan 20:30ean.

Antzerkia

■ **Alegia.** Lakrikun Taldearen eskutik *Greban gaude* antzezina eskainiko da Alegiko Kultur Etxean. 22:30ean. Dohainik.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Izadi Lasa Nieto (Laskibar).

Gaur 2 urte. Muxu asko etxekoan partetik.



Urte askoan!

Zuraide. Gaur urtebete. Zorionak. Asko maite zaitut, amoñak Tolosatik.

Euskal Herriko errepide mapa

- Euskarazko toponimia
- Bide sare berriak
- Bidaldiak, kilometroak zehazturik
- Herrien zerrenda
- Euskal Herriko hiriburuaren gune turistikoaren plano eta kale izendegi osoak
- Mendi zerrenda

ESKALA 1:200.000
(1 cm=2 km)

Eguneratua!

Martxoaren **8, 9** eta **10**ean zure kioskoan



+ 5,95€

AUKERA EZAZULU BIZI EUSKARAZ **berria**

Atsedean hartzeko etxea VILLATUERTAN duzu

ERAKUNTZA LAMAK lantzen

Tierras y Valles

Urbasa eta Andako Parke Naturalaren ondoren Urbanizazio berezia

Binakako etxeak eta erabilin etxeak, 170m² erabilgari artekoak 300m² arteko partzeekin

30m² baino gehiagoko lekualdeak - 4 pata, 2 bainu eta eta komunak

Lehenengo mailako materialak - Lantzen gabeke prezioak

Orraga Zubiri Erle Garsi Millañeta Lizarte Las Arca Legorbe

Tolosa Lizartza Aldai Vivienitas Irurika Lizartza

Samaniego kalea, 1, etxebizitea Tel: 943 65 11 22 - Muga: 679 84 27 86

Gomil kalea, 39, behea Tel: 948 28 14 13

Vianako Printzearen kalea, 11, behea Tel: 946 55 58 94



Bete itzazu urteak hitzarekin



HITZAren harpidedun egin zaitez martxoan, eta bi opari hauetako bat jasoko duzu.

Harpidetza **eskaintza** berezia

HITZAri buruzko informazioa

Tolosaldeko eta Leizaldea HITZA

EUSKAL HERRIAN ZEHAR MENDI IRTEERA Martxoak 16 Igandea

ARABAko Toloñora

4 orduko ibilaldia eta ondoren upategira bixita.

08:00etan Ibarra plaza geratuko gara.

Oharra: autobusaren apuntatzeko, Denak eta Zubiaurre tabernetan



ANTOLATZAILAK: BAI EUSKAL HERRIARI eta HAITZETAN RAJU